



fagore**ederlan**taldea

INFORMAZIO SEGURTASUN

POLITIKA

2021/11

Informazio Segurtasun Politika

Informazioa funtsezko baliabidea da gure negozioarentzat. Informazioa eta hura kudeatzeko erabiltzen ditugun IKT sistemak babestea funtsezko zereginak dira orain gure helburuak lortzeko. Fagor Ederlan Taldeak gure informazioarekin eta honen babesarekin duen konpromisoa agerian geratzen da:

- Kudeaketa Sistema bat ezarriz, indarrean dagoen legeria eta gure kontratu- eta sozietate-konpromisoak betetzeko tresna gisa, eta informazioa gure premien arabera ziurtatzeko lan-esparru bat edukiz.
- Behar diren neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartuta, informazioa beharrezkoa denean eskuragarri egon dadin, informazioa behar dutenentzat bakarrik, eta uneoro zuzen egon dadin.
- Gure informazioak dituen arriskuak identifikatuz, arrisku horiek murrizteko planak ezarriz, gure segurtasuna hobetuz.
- Informaziorako sarbidea murriztuz, pertsona bakoitzak bere lanerako behar duen informazioa eskuratu ahal izan dezan eta baimenik ez duen inork ezin izan dezan hori egin.
- Informazioaren segurtasuna arriskuan jar dezakeen edozein egoeraren berri emateko mekanismoak langileen eskura jartzea, berehala konpondu ahal izan dadin kooperatibari ahalik eta kalterik txikiena eragiteko.
- Kontzientziazio-programak ezartzea, FE Taldeko pertsona guztiek informazioaren segurtasunari dagokionez dituzten erantzukizunak uler ditzaten eta politika hau betetzeko aurreikusitako jarduerak bete ditzaten.